



BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Gizarte zerbitzuak **herritar guztientzat zabalik** dauden baliabide publikoak dira, bertan **informazioa eta orientabidea** eman eta baliabide eta laguntasunak jasotzeko tramiteak burutzen dira.

NON GAUDE:

Gernika-Lumo

Alondegia 6. behea

Telf: 94 625 51 22

ORDUTEGIA:

Astelehenetik barikura

Goizeko 9etatik eguerdiko ordu 2 etara





Adinekoak eta menpekotasuna duten pertsonak



Autonomia galdu duten edota galtzeko arriskuan dauden pertsonen bizi-baldintzak hobetzea da gure helburua, ahal den neurrian euren etxeetan eta inguruan bizitzen jarraitzeko baliabideak eskainiz

MENDEKOTASUN BALORAZIOAK: balorazioaren bitartez, autonomia galdu duen pertsonen egoera aztertu, balorazioa egin eta, ondoren, bere egoerari erantzuteko egokiak diren baliabideak zehazten dira: eguneko zentro eta egoitza, prestazio ekonomikoak, telelaguntza zerbitzua, etxex-etxeko laguntza...

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA: adin nagusikoak direlako edota gaixotasunen bat dutelako, autonomia murriztuta duten pertsonen eguneroko bizitzako zereginetan laguntzea, bizi kalitatea hobetu eta bere inguruenean bizitzen jarraitzeko aukera emanez



TELE-LAGUNTZA: bakarrik bizi edota, etxekoekin bizi arren, egunean zehar luzaroan bakarrik dauden pertsonen zuzendutako baliabidea da. 60 urtetik gorakoek eta ezintasunak dituzten herritarrek eska dezakete.

LAGUNTZA TEKNIKOEN MAILEGUA: mendekotasuna duten herritarrentzako edota aldi baterako autonomia murriztuta duten pertsonentzako laguntza teknikoaren mailegu zerbitzua: gurpildun aulkia, ohe artikulatua, garabi artikulatua, bainurako aulkia...



GIZATEK: pertsonen autonomia hobetzeko laguntza teknikoari buruzko informazioa, orientazioa eta dirulaguntzak .



Zainduz

ZAINDUZ: Mendekotasuna duten familiartekoen zaintzaileei arreta eta laguntza. Norbere buruaren zaintzak duen garrantziaz jabetu eta zaintza lana errazteko teknikak landuz. Horretarako hitzaldiak, prestakuntza, banakako arreta eta laguntza taldeak antolatzen ditugu.



Hautzaroa eta familia



FAMILIAK ORIENTATZEKO ETA LAGUNTZEKO ZERBITZUA:

- Haur eta nerabeak babesik gabe edo gizarte-arriskuan daudenean, egoerari erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak eskura jarri.
- Seme-alaben heziketan zailtasunak dituzten familiei orientazioa eta laguntza ematea, haurrek jasotzen duten arreta hobetze aldera, esku-hartze psikologiko, hezigarri eta sozialen bitartez.

Immigrazioa



Beste herrialdeetatik datozen pertsonen gizarteratzea bultzatu eta herritar guztien artean bizikidetza sustatu.

Arreta eta informazioa: gure eskualdera heltzean etorkinei orientazioa eskaintzea

Kultur arteko bizikidetza sustatzeko programak: ikastetxeetan, ludoteketan eta udalekuetan, prestakuntza saioak, BERBA-TRUKE programa...



Emakumeak

Egoera zailak bizi dituzten emakumeei babesa emateko neurriak hartu emakumeentzako programa berezien bitartez.

EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO LEGE AHOLKULARITZA: Emakumei gai juridikoei buruzko informazioa eta orientabidea ematea: banaketak eta horien ondorengo zalantzak, emakumeen aurkako indarkeria, emakume langileen eskubideak

GENERO INDARKERIA BIZI DUTEN EMAKUMEENTZAKO HARRERA: Koordinazioan lan egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria egoeretan esku hartzen duten eskualdeko eragileekin.

Prestazio ekonomikoak



GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK: oinarritzakoak diren gastu zehatz batzuei aurre egiteko laguntasan ekonomikoak dira eta gastu horiei erantzuteko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonentzako dira.

LAGUNTZA BEREZIAK: gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko legeak zehazten dituen baldintzak bete ez, eta zailtasun ekonomiko larriak bizi dituzten herritarrentzako dira.



Busturialdeko Gizarte
Zerbitzuen Mancomunitatea
Mancomunidad de Servicios
Sociales de Busturialdea



BFA
DFB
Adularia Foru
Elkartea
Foro de Adularia
Elkarrekin
Busturialdea
Busturialdea

